

**A.4.2. LEGARRE GAIN****A.4.2. LEGARRE GAIN**Azalera: 14.160 m²**I. Ordenazio-irizpideak eta Helburuak**

Eremu hau Arrajola eta Arrate Bide Kalearen bitartean kokatzen da.

Alde honetan, bertako eraikinak bermatzeaz gainera, zera proposatzen da:

* Legarreko goiko aldean, Abontzabide kaleraino, hiri egitura osatzea, bizilekutarako erabiliko diren hainbat etxebizitza bloke eraikiz, 130 01 JI Legarre-Gain Jarduketa Isolatuaeren garapen bidez. Jarduketa eremu honen zehaztapenak dagokion hirigintza fitxan jasotzen dira.

II. Hirigintza-Erregimen Orokorra

Kalifikazio Globala:

O-CG-01 "Kalifikazio Globala", Ordenazioko (I. Liburukia) V. Planoaren araberakoa.

Eraikuntzaren Baldintza Partikularrak:

Eguno eraikinak, ordeztzerakoan, O-AL-AO-1, O-AL-AO-2B eta 2C "Lerrokadurak eta Sestak. Ordenantza Eremuak ", XII. planoetan zehazturiko lerrokadurei eta sestrei egokitu beharko dira, eta 2/2006 ELH Legearen xedapenak kontuan hartuta Hirigintza Arau Orokorrei egokitu.

Erabilera Baldintza Partikularrak:

Eremuaren erabilera ezaugarritzen duena Bizitegi edo egoitza erabilera da: Hirigintza Arauen agirian 8.3.07. Artikulua.- Egoitza erabilera (6. erabilera).

III. Ordenazio Xehatua

Eremu honetan zehaztutako eremu-banaketa baldintzak, O-CP-01 "Kalifikazio Xehatua", Ordenazioko (I. Liburukia) VII. Planoan ezarritakoari egokitu beharko dira.